



MD12010	
Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
1	2018-09-01

## Lan taldearen memoria

Lan taldea: **Haur Hezkuntza**

ikasturtea: **2020-2021**

### 1. Sarrera

Ikasturte honetarako taldeak bi zeregin nagusi izan ditu, alde batetik, PAM 001 ikastaroa eskolan inplementatu eta praktikara eramateko beharrezkoak izan diren doikuntza eta berrikuntzak ezartzea. Bestetik, HHko PEGari dagokion hirugarren eta azken atala moldatu eta ikastaro legez eskeintzea.

Lehenengo lana bete da, PAM berria zenbait eskoletan praktikara eraman da eta egin beharreko doikuntza eta aportazioak egin dira. Eskoletako lankideek oso balorazio positiboa eman diote ikastaroari eta honek bere baliogarritasuna nabarmendu du. Aipatzekoa da, Arabako Berritzeguneetatik eskeintzen den ikastaro hau guztiz bat datorrela Berritzegune Nagusitik HHBEEn barnean bultzatzen den Mugimendu Autonomoarekin eta zenbait kasutan bertako aholkulari arduradunarekin koordinatu eta eskuhartze bateratuak burutu direla.

Bigarren zeregina ordea, ezin izan dugu aurrera eraman. Alde batetik, hezkuntza sailak ikastetxeei kurtso hasieran nahi eta nahi ez egin beharreko zenbait formaziok, gure PAMaren hasiera atzeratu dute (batzuk maiatzean bukatu ditugu), bestetik sailak esleitutako beste zeregin batzuk izan ditugu, horien artean nabarmenena Arreta Goiztiarreko datu bilketa izan da. Guzti honek, bigarren eta azken hiruhilekoan lan karga handia ekarri digu, ondorioz ezin izan diogu HHko PEGari merezi duen ganorazko arreta eta denbora eskeini. Beraz zeregin hau egiteke geratu zaigu.

### 2. Taldean ekoiztutako dokumentuak

PAM 001 ikastaroa praktikara eramatean ezarri dizkiogun doikuntza, berrikuntza eta aportazioak.

### 3. Taldekideek ikastetxeetan egin diren esku-hartze nabarmenenak

1. CPI SAMANIEGO IPI – PAM 001
2. CEIP VICTOR TAPIA HLHI – PAM 001
3. CEIP P. LOPE DE LARREA HLHI – PAM 001
4. CPEIPS PAULA MONTAL ESCOLAPIAS HLBHIP – PAM 001

### 4. Prestakuntza ekintzak: taldekideek emandako ikastaro eta mintegiak

### 5. Datorren ikasturterako aurreikusten diren zereginak

- Egiteke geratu den HH PEGaren hirugarren atala (ekimenak aurrera jarraitzen baldin badu).
- Ikastetxeetatik PAM 001 eko eskariei erantzuna eman.